1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación





**Relativa a creación de tres "Harrera Morea", servicios especializados 24 horas para víctimas y sobrevivientes de violencia sexual** (Admisión a trámite)  
(11/11.02.01.00622)

La Mesa, en su reunión del día 17 de septiembre de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Eukene Arana Varas, integrante del grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno, relativa a creación de tres "Harrera Morea", servicios especializados 24 horas para víctimas y sobrevivientes de violencia sexual.

**Justificación**

La violencia sexual ejercida contra las mujeres es una de las múltiples expresiones de las violencias machistas. Forma parte de la violencia estructural que se ejerce hacia las mujeres en una sociedad patriarcal como la nuestra.

En los últimos años cada vez más mujeres se atreven a denunciar en servicios públicos, y no solo en sedes policiales y judiciales, agresiones sexuales ejercidas por parejas, exparejas o personas desconocidas.

Los datos facilitados por el Departamento de Seguridad y el Poder Judicial muestran con claridad la tendencia ascendente en el número de denuncias.

El movimiento feminista ha sido fundamental para comenzar a romper con la normalización y el tabú de la violencia sexual. La sociedad es cada vez más sensible y está más concienciada. Cada vez son más las mujeres que dan el paso para denunciar o hacer públicos el acoso, los abusos y agresiones, y desde la sociedad el apoyo también es cada vez mayor.

La ciudadanía vasca es cada vez más exigente con la manera en la que se abordan policialmente, judicialmente y desde todas las instituciones. Y estas

**Hiru "Harrera Morea", indarkeria sexualaren biktima eta bizirik atera direnentzako 24 orduko zerbitzu espezializatuak, sortzeari buruz** (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.00622)

Mahaiak, 2019ko irailaren 17ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki iritzitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Eukene Arana Varas Elkarrekin Podemos talde parlamentarioko kideak, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, legez besteko proposamen hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, hiru "Harrera Morea", indarkeria sexualaren biktima eta bizirik atera direnentzako 24 orduko zerbitzu espezializatuak, sortzeari buruz.

**Arazoia**

Emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria sexuala indarkeria matxisten askotariko adierazpenetako bat da. Gure gizarte patriarkalean emakumeen aurka erabiltzen den egiturazko indarkeriaren zati da.

Azken urteetan, gero eta emakume gehiago ausartzen dira bikotekideek, bikotekide ohiek edo ezezagunek euren aurka egindako eraso sexualak salatzea zerbitzu publikoetan, ez bakarrik polizia-egoitzetan eta epaitegietan.

Segurtasun Sailak eta Botere Judizialak eman dituzten datuek argi erakusten dute salaketa kopurua gorantz doala.

Mugimendu feminista funtsezkoa izan da indarkeria sexualaren normalizazioa eta tabua hausten hasteko. Gizartea gero eta sentikorragoa da, eta gero eta kontzientziatuago dago. Gero eta emakume gehiagok ematen dute jazarpena, abusuak eta erasoak salatzeke edo publiko egiteko urratsa, eta gizarteak ere gero eta babes handiagoa ematen du.

Euskal herritarrek gero eta exijenteagoak dira, nola ekiten zaien polizialki, judizialki eta erakunde gutzietatik. Eta erakundeok maila eman behar dute.



deben estar a la altura. Además de sensibilizar y concienciar, se debe ofrecer la atención, la protección y todos los apoyos especializados necesarios que exige la sociedad para que las mujeres puedan continuar con su proyecto de vida.

Este aumento del número de denuncias, esta mayor conciencia y exigencia social debe ir acompañada de cambios también en las instituciones.

Es necesario repensar las respuestas y el apoyo que se ofrece a las mujeres; es imprescindible aumentar la especialización de las instituciones, y los servicios deben ser más y mejores.

Es imprescindible continuar con la sensibilización y prevención de este tipo de violencia. Igualmente importante es brindar una atención integral y de calidad a las mujeres víctimas y supervivientes de esta forma de violencia.

En la línea de brindar atención y acompañamiento integral y especializado, ya en 2008, el Consejo de Europa, en un informe sobre estándares mínimos de atención a la violencia contra las mujeres, mencionaba los denominados "centros de crisis", servicios especializados de atención a violencia sexual, que, con particularidades en función de la realidad de cada lugar, funcionaban en Irlanda, Inglaterra, Australia o Estados Unidos.

Posteriormente, el Convenio de Estambul en su artículo 25, estableció, en relación con el apoyo a víctimas de violencia sexual:

"Las partes tomarán las medidas legislativas u otras necesarias para permitir la creación de centros de ayuda de emergencia para las víctimas de violaciones o de violencias sexuales, apropiados, fácilmente accesibles y en número suficiente, para realizarles un reconocimiento médico y médico-forense, un apoyo vinculado al traumatismo y consejos".

El llamado Informe Sombra sobre el cumplimiento del Convenio de Estambul en el periodo 2014-2018, elaborado por organizaciones sociales y firmado por 252 entidades de todo el Estado español, señalaba, entre los aspectos pendientes de cumplir, ese artículo 25 del convenio.

Amnistía Internacional publicaba en 2018 una investigación sobre violencia sexual, y entre las recomendaciones incluía: "crear servicios especializados como teléfonos disponibles las 24 horas del día, los 365 días del año, y garantizar la existencia de centros especializados en violencia sexual en todos los territorios del Estado español".

En la cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, existen los que se

Sensibilizatu eta kontzientziatzeaz gain, gizarteak eskatzen dituen arreta, babesa eta behar diren laguntza espezializatu guztiak eman behar dira emakumeek beren bizi-proiektuarekin jarraitu dezaten.

Salaketa kopuruen gorakada, kontzientzia handiagoa eta esijentzia soziala ikusirik, erakundeek ere aldaketak egin behar dituzte.

Birpentsatu egin behar dira emakumeei ematen zaizkien erantzunak eta babesa; ezinbestekoa da erakundeen espezializazioa areagotzea, eta zerbitzu gehiago eta hobekak behar dira.

Ezinbestekoa da mota horretako indarkeriaren sensibilizazioarekin eta prebentzioarekin jarraitzea. Hori bezain garrantzitsua da mota horretako indarkeriaren biktima izan diren eta bizirik atera diren emakumeei arreta integrala eta kalitatezkoa ematea.

Arreta eta laguntza integrala eta espezializatua ematearen ildotik, 2008an, Europako Kontseiluak, emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko gutxieneko estandarrei buruzko txosten batean, "krisi-zentro" direlakoak aipatzen ditu. Indarkeria sexualari arreta emateko zerbitzu espezializatuak dira horiek, eta, berezitasunak berezitasun (leku bakoitzeko errealitatearen arabera), Irlandan, Ingalaterran, Australian eta Estatu Batuetan funtzionatzen zuten, besteak beste.

Gerora, Istanbulgo Hitzarmenak, 25. artikuluan, zera ezarri zuen, indarkeria sexualaren biktimei laguntzeari dagokionez:

"Aldeek lege-neurriak edo behar diren bestelako neurriak hartuko dituzte bortxaketen edo indarkeria sexualen biktimei larrialdiko laguntza emateko zentroak sortzeko. Zentrook egokiak izan behar dute, erraz iristeko modukoak, eta behar beste egon behar dute. Emakumeei azterketa mediko eta mediko-forentse bat egin behar diete, eta traumatismoari lotutako laguntza eta gomendioak eman behar dizkiete".

2014-2018 denboraldian Istanbulgo Hitzarmena betetzeari buruzko Itzal Txostena delakoak –gizarte-erakundeek egin zuten, eta Espainiako Estatuko 252 entitatek sinatu zuten– adierazten zuen betetzeke dauden alderdietako bat hitzarmenaren 25. artikuluko hori dela.

2018an, Amnistia Internazionalak indarkeria sexualari buruzko ikerketa bat argitaratu zuen, eta, gomendioen artean, honako hau zegoen: "zerbitzu espezializatuak sortzea, hala nola egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez arreta emateko telefonoak, eta Espainiako Estatuko lurralde guztietan indarkeria sexualean espezializatutako zentroak egon daitezen bermatzea".

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan, badira "gizarte-larrialdien





llaman "servicios de coordinación de urgencias sociales" y "servicios de atención socio-jurídica y psicosocial de las situaciones de maltrato doméstico y agresiones sexuales a mujeres, a personas menores de edad, a personas mayores y a personas con discapacidad". Atienden a un espectro de población muy amplio, se abarcan múltiples situaciones de exclusión, desprotección y violencias, con causas y consecuencias diversas, horarios limitados de atención y, en algunos casos, de acceso indirecto. En este marco, el rol de los servicios en la atención a las mujeres víctimas de violencia es importante, pero son claramente insuficientes. No hay servicios de referencia especializados en violencia sexual hacia las mujeres.

Los avances de la sociedad, el empoderamiento de las mujeres, un mayor conocimiento de la realidad y del fenómeno de las violencias machistas y la violencia sexual, las diferentes experiencias internacionales, la demanda actual, y, como hemos mencionado de forma somera, los estudios, recomendaciones y normativa internacional vienen apuntando la necesidad de ofrecer servicios especializados específicos, espacios seguros para acoger, atender y acompañar a las mujeres víctimas de violencia sexual, poniendo su bienestar en el centro de todo el proceso.

Por todo ello, en el marco de la cartera de servicios sociales, proponemos la creación de tres "Harrera Morea", servicios especializados 24 horas para mujeres víctimas y sobrevivientes de violencia sexual. Se trata de espacios seguros, que ofrecerán un apoyo, contención y acompañamiento especializado y diferenciador, en los cuales se respetará en todo momento la palabra y el criterio de la mujer agredida (anonimato, si desea denunciar o no, si desea contar lo que le ha ocurrido o no...).

Los servicios estarán formados por equipos interdisciplinarios que aseguren una acogida personalizada, integral, continuada, integrados por personas expertas en violencia sexual, derechos humanos, trauma, crisis y emergencias, para las víctimas y sus seres cercanos, abiertos de forma permanente, que presten acompañamiento individualizado a lo largo de todo el proceso y que, además, trabajen en la prevención y en la transformación social, no solo en la asistencia.

Por todo ello, se presenta la siguiente

#### PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Impulsar la creación de tres "Harrera Morea", servicios especializados en violencia sexual, uno por cada territorio, disponibles 24 horas, 365 días, para mujeres que han vivido un intento o una situación de violencia sexual recientemente

koordinazioko zerbitzuak" eta "tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak" direlakoak. Biztanleria-espekto oso zabala artatzen dute; bazterketa-, babesgabetasun- eta indarkeria-egoera ugari hartzen dituzte barnean, askotariko arrazoi eta ondorioetakoak; arreta-ordutegi mugatuak dituzte; eta, kasu batzuetan, herritarrak ez dira zuzenean bideratzen bertara. Esparru horretan, paper garrantzitsua betetzen dute zerbitzuek indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko, baina ez dira nahikoak, argi eta garbi. Ez dago emakumeen aurkako indarkeria sexualean espezializatutako erreferentziako zerbitzurik.

Gizarteko aurrerapenek, emakumeen ahalduntzeak, errealitatearen eta indarkeria matxisten eta indarkeria sexualaren fenomenoek ezagutza handiagoak, nazioarteko zenbait esperientziak, egungo eskariak, eta, azaletik aipatu dugunez, nazioarteko ikerketek, gomendioek eta araudiak erakusten dute berariazko zerbitzu espezializatuak eskaini behar direla, indarkeria sexualaren biktima diren emakumeak hartzeko, artatzeko eta laguntzeko gune seguruak, eta haien ongizatea jarri behar dela prozesu guztiaren erdigunean.

Horregatik guztiagatik, gizarte-zerbitzuen zorroaren baitan, proposatzen dugu hiru "Harrera Morea", indarkeria sexualaren biktima eta bizirik atera direnentzako 24 orduko zerbitzu espezializatuak, sortzea. Gune seguru horietan, babes, euspide eta laguntza espezializatua eta bereizlea emango da, eta une oro errespetatuko da erasoak jasan duen emakumearen hitza eta irizpidea (anonimotasuna, salatu nahi duen ala ez, gertatu zaiona kontatu nahi duen ala ez...).

Zerbitzuak diziplinarteko taldeez osatuta egongo dira. Taldeok harrera pertsonalizatua, integrala eta jarraitua bermatuko dute; indarkeria sexualean, giza eskubideetan, trauman, krisian eta larrialdietan adituak diren pertsonen osatuta egongo dira; biktimentzat eta haien hurbilekoentzat izango dira; etengabe egongo dira irekita; laguntza individualizatua emango dute prozesu osoan zehar; eta, gainera, prebentzioan eta gizarte-eraldaketan egongo dute lan, ez bakarrik laguntzan.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

#### LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Bultzatzea hiru "Harrera Morea", indarkeria sexualaren biktima eta bizirik atera direnentzako 24 orduko zerbitzu espezializatuak, sortzea, egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez arreta emango dutenak, azkenaldian edo



o en el pasado, ejercida por parejas, exparejas, familiares o personas desconocidas, que brinden un servicio permanente y multidisciplinario desde los enfoques de género, derechos humanos e interseccionalidad. Se pondrán en marcha en el primer semestre de 2020. Entre sus funciones:

- A. Acogida y atención de emergencia, contención emocional, apoyo psicológico, apoyo en la toma de decisiones, acompañamiento físico para la atención sanitaria de emergencia.
- B. Se brindará también asesoramiento jurídico y, si la víctima desea interponer denuncia, acompañamiento para su presentación en dependencias policiales y/o judiciales.
- C. Acompañamiento psicosocial y asesoramiento jurídico a medio y largo plazo para víctimas y familiares, tanto si se ha denunciado como si no, para su proceso de obtención de justicia y reparación integral.
- D. Prevención de la violencia sexual, teniendo especial atención en los casos de mujeres con discapacidad intelectual o mujeres en situación de dependencia de sus agresores.
- E. Sensibilización orientada al conjunto de la población para la prevención y erradicación de la violencia sexual.
- F. Los servicios integrarán el principio del interés superior de la infancia; por lo cual, los espacios estarán adaptados para aquellas situaciones en que las mujeres puedan acudir acompañadas de sus hijas e hijos. Además habrá presencia de profesionales con formación para ofrecer una primera atención a la infancia.

2. Los servicios 24 horas se diseñarán y se conformarán teniendo en cuenta las buenas prácticas existentes en Euskadi y a nivel internacional, aportaciones de víctimas y supervivientes de violencia sexual, asociaciones especializadas, personas expertas, así como el Movimiento Feminista.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de septiembre de 2019

**Eukene Arana Varas, parlamentaria del grupo Elkarrekin Podemos. Lander Martínez Hierro, portavoz**

\*\*\*

iraganean indarkeria sexualaren saialdi bat edo egoera bat bizi izan duten emakumeentzat, erasotzailea bikotekidea, bikotekide ohia, senide bat edo ezezagun bat izanik, eta diziplina anitzeko zerbitzu iraunkor bat emango dutenak, generoaren, giza eskubideen eta interseccionalitatearen ikuspegitik. 2020ko lehenengo sei hilekoan jarriko dira martxan, eta eginkizun hauek izango dituzte, besteak beste:

- A. Harrera eta larrialdiko arreta, euspide emozionala, laguntza psikologikoa, erabakiak hartzeko laguntza, larrialdiko osasun-arreta hartzeko fisikoki laguntzea.
- B. Aholkularitza juridikoa ere emango da, eta, biktimak salaketa jarri nahi badu, lagundu egingo zaio salaketa polizia-egoitzetan edo epaitegietan jartzen.
- C. Epe ertain eta luzeko laguntza psikosoziala eta aholkularitza juridikoa biktimentzat eta haien senideentzat, salaketa jarri edo ez, justizia eta erreparazio integrala lor dezaten.
- D. Indarkeria sexuala prebenitzea, arreta berezia jarritz desgaitasun intelektuala duten edo beren erasotzaileen mende dauden emakumeen kasuetan.
- E. Biztanleria osoa sensibiltzatzea, indarkeria sexuala prebenitu eta desagerrarazteko.
- F. Zerbitzuek haurren interes gorenaren printzipioari jarraitu behar diote; beraz, guneek egokituta egon behar dute, emakumeak beren seme-alabekin etorriko balira ere. Horrez gain, profesional trebatuek egon behar dute, haurrei lehen arreta emateko.

2. 24 orduko zerbitzuak diseinatu eta osatuko dira kontuan izanik Euskadin eta nazioartean dauden jardunbide egokiak, eta indarkeria sexualaren biktimen eta bizirik atera direnen, elkarte espezializatuen, aditu en eta Mugimendu Feministaren ekarpenak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 13a

**Eukene Arana Varas, Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkidea. Lander Martínez Hierro, bozeramailea**

\*\*\*



**Hiru "Harrera Morea", indarkeria sexualaren biktima eta bizirik atera direnentzako 24 orduko zerbitzu espezializatuak, sortzeari buruz**  
(Zuzenketak)  
(11/11.02.01.00622)

Mahaiak, 2019ko urriaren 8ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Elkarrekin Podemos talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

## EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOA

### OSOKO ZUZENKETA

"Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. 'Krisi-zentroak' izenaz ezagunak diren espazio fisikoak eta hauetan lan egingo luketen diziplina anitzeko ekipo espezializatuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen zerbitzu eta prestazioen zorroaren barnean sar ditzala eta sor daitezela. Zerbitzu horrek, indarkeria matxista sufritu duten pertsonak artatzeko eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan arreta eskainiko luke, berdintasunean, giza eskubideetan, krisi egoeretan eta larrialdietan formatutako diziplina anitzeko profesionalekin. Bere lan-lerroen artean egongo dira:
  - a. Harrera eta larrialdiko arreta, euspide emozionala, erabakiak hartzeko laguntza, larrialdiko osasun-arreta hartzeko fisikoki laguntzea eta informazioa eta orientazioa.
  - b. Aholkularitza psikologikoa eta juridikoa ere emango dira. Horiek, hasierako arreta egiteaz arduratuko dira, salaketa jarri nahi izanez gero, edo laguntza psikologikoa jarraitua sustatzeko, eskura dauden arreta telefono, aditu, eta zerbitzuetara bideratzeko kapazitatea izango dute.
2. Indarkeria matxistaren biktimak diren pertsonen identitate anitzak aintzat hartzea, adin txikikoentzako eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzako egokitutako espazioak izan beharko dutelarik. Haurrekin, aniztasun funtzionala dutenekin zein bestelako kolektiboekin lan egiten duten bestelako zerbitzuekin elkarlana sustatuko da.
3. Zerbitzu horien definizioa egin dezala Euskal Autonomia Erkidegoan dagoeneko dauden

**Relativa a creación de tres "Harrera Morea", servicios especializados 24 horas para víctimas y sobrevivientes de violencia sexual** (Enmiendas)  
(11/11.02.01.00622)

La Mesa, en su reunión del día 8 de octubre de 2019, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

## GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU

### ENMIENDA DE TOTALIDAD

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que:

1. Los espacios físicos conocidos como 'centros de crisis' y los equipos especializados multidisciplinares que trabajarían en ellos, se creen y se introduzcan dentro de la cartera de prestaciones y servicios de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales. Dicho servicio ofrecería atención 24 horas al día y 365 días al año para atender a las personas que han sufrido violencia machista, con profesionales multidisciplinares formados en igualdad, derechos humanos, situaciones de crisis y emergencias. Estarán entre sus líneas de trabajo:
  - a. Acogida y atención de emergencia, contención emocional, apoyo en la toma de decisiones, acompañamiento físico para la atención sanitaria de emergencia, así como información y orientación.
  - b. También se prestarán asesoramiento psicológico y jurídico. Se ocuparán de la atención inicial, en caso de querer interponer una denuncia o para promover la atención psicológica continuada, tendrán capacidad para derivarlos a los teléfonos de atención, a los expertos y a los servicios disponibles.
2. Tener en cuenta las múltiples identidades de las víctimas de la violencia machista, así como disponer de espacios adaptados para menores de edad y para personas con diversidad funcional. Se promoverá la colaboración con otros servicios que trabajan con la infancia, con las personas con diversidad funcional y otros colectivos.
3. La definición de dicho servicio se lleve a cabo teniendo en cuenta la evaluación y las



zerbitzuen ebaluazioa eta funtzioak aintzat hartuz eta nazioartean dauden jardunbide egokiak barnebilduz. Horrez gain eta indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera direnen, elkarte espezializatuen, adituen, berdintasun-teknikarien eta mugimendu feministaren ekarpenak bilduko dira.

4. Zerbitzu hori ere, 4/2005 Berdintasun Legearen erreformaren barruan kokatuko da".

#### GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO

##### ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mejorar la atención a las víctimas de violencia de género y a tomar las medidas necesarias, y en concreto, las siguientes:
- Reforzar la atención continua y de emergencia a las víctimas en sus propios municipios o en los puntos más cercanos con el acompañamiento y el apoyo psicológico que precisen.
  - Proporcionar asesoramiento jurídico para que las víctimas puedan emprender las actuaciones jurídicas que se consideren convenientes, entre ellas, la presentación de la denuncia correspondiente con el objeto de proporcionar una protección adecuada.
  - Revisar los protocolos de atención a las víctimas de violencia de género en los distintos ámbitos para garantizar servicios rápidos, eficientes e integrales.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a remitir a la cámara autonómica, a la mayor brevedad posible, la propuesta legal que regule la erradicación de la violencia contra las mujeres, comprometida en su calendario legislativo".

#### EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK

##### OSOKO ZUZENKETA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Euskadin ezarritako eskumen-banaketaren eremuan eta kontuan izanik adostutako maila anitzeko arreta-sistema, indartu dadila egun indarkeria sexuarekiko kasuen aurrean ematen den arreta, emakumeei arreta ematen saiatzeko beren udalerrietan bertan edo handik gertuko lekuetan, 365 egunean 24 orduz.

funciones de los servicios ya existentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco, introduciendo las buenas prácticas vigentes a nivel internacional. Asimismo, se recogerán las aportaciones de las víctimas de violencia machista, de las personas supervivientes, las asociaciones especializadas, las personas expertas, las técnicas y técnicos de igualdad y el movimiento feminista.

4. Dicho servicio también se incluirá en la reforma de la Ley de Igualdad 4/2005".

#### EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA

##### OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hobe dezala genero-indarkeriaren biktimentzako arreta eta har ditzala hartu beharreko neurriak eta, zehazki, ondoko hauek:
- Indartu dezala biktimen etengabeko eta larrialdiko arreta beren udaletan edo punturik hurbilenetan, behar duten laguntza eta laguntza psikologikoa emanez.
  - Aholkularitza juridikoa ematea biktimek egokitzat jotzen dituzten jarduketara juridikoei ekiteko aukera izan dezaten, besteak beste, dagokion salaketa aurkeztea, babes egokia emateko xedearekin.
  - Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta-protokoloak berrikustea esparru ezberdinetan, zerbitzu azkar, eraginkor eta integralak bermatze aldera.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bidal dezala lehenbailehen Ganbera autonomikora emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharrezko neurriak arautzeko legeko proposamena, bere legegintza-egutegian hitzemandako zegoena".

#### GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

##### ENMIENDA DE TOTALIDAD

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A que, en el marco de la distribución competencial establecida en Euskadi y teniendo en cuenta el sistema multinivel de atención acordado, se refuerce la atención ante casos de violencia sexual actualmente prestada, tratando de ofrecer la atención a las mujeres en sus propios municipios o en puntos cercanos al mismo las 24 horas del día, 365 días.



Hori guztia, honako hauek emateko helburuz:

- A. Larrialdiko harrera eta arreta, euspeide emozionala, laguntza psikologikoa, erabakiak hartzeko laguntza, larrialdiko osasun-arreta hartzeko fisikoki laguntzea.
- B. Aholkularitza juridikoa ematea eta, biktimak salatu nahi badu, lagundu egingo zaio salaketa polizia-egoitzetan edo epaitegietan jartzen.
- C. Epe ertain eta luzeko laguntza psikosoziala eta aholkularitza juridikoa biktimentzat eta haien senideentzat, salaketa jarri edo ez, justizia eta erreparazio integrala lor dezaten.

2. Erakunde arteko II Akordioaren jarraipen Batzordearen esparruan lan egin dezala dagokien erakundeekin erantzun koordinatu bat adoste aldera, lagunduko duena arreta indartzen sexu-indarkeria kasuen aurrean, kontuan izanik Euskadin badauden jardunbide egokiak eta nazioartean identifikatutakoak, sexu-indarkeriaren biktimen eta bizirik atera direnen ekarpenak aintzat hartuta, hala nola espezializatutako elkarreana, pertsona adituena eta mugimendu feministarena.

\*\*\*

Todo ello con el objetivo de prestar:

- A. Acogida y atención de emergencia, contención emocional, apoyo psicológico, apoyo en la toma de decisiones, acompañamiento físico para la atención sanitaria de emergencia.
- B. Brindar asesoramiento jurídico y, si la víctima desea interponer denuncia, acompañamiento para su presentación en dependencias policiales y/o judiciales.
- C. Acompañamiento psicosocial y asesoramiento jurídico a medio y largo plazo para víctimas y familiares, tanto si se ha denunciado como si no, para su proceso de obtención de justicia y reparación integral.

2. A que en el marco de la Comisión de seguimiento del II Acuerdo interinstitucional se trabaje con las instituciones concernidas para consensuar una respuesta coordinada que contribuya a reforzar la atención ante los casos de violencia sexual teniendo en cuenta las buenas prácticas existentes en Euskadi y así como las identificadas a nivel internacional contando con las aportaciones de víctimas y supervivientes de violencia sexual, asociaciones especializadas, personas expertas así como el movimiento feminista.

\*\*\*





4. gaia. Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko maiatzaren 14ko Aginduan farmaziak kanpoan uzteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00143]

-----

. Mozioa aurkeztea: 2019-06-17

-----

Osoko bilkurako izapidetzea (Erregelamenduko 175. eta 182. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda, zuzenketarik egin bada (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Ihardespen-txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 4. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a la exclusión de las farmacias de la Orden de 14 de mayo de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2019, el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales. [11\11\03\00\00143]

-----

. Presentación de la moción: 17.06.2019

-----

Tramitación en el pleno (artículos 175 y 182 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes, si hubiere (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación







*Relativa a la exclusión de las farmacias de la Orden de 14 de mayo de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2019, el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales* (Admisión a trámite)  
(11/11.03.00.00143)

La Mesa, en su reunión del día 18 de junio de 2019, acuerda admitir a trámite la MOCIÓN consecuencia de la interpelación formulada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 182.2 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar, hasta 24 horas antes del comienzo de la sesión plenaria en que se debata esta moción, las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento tiene el honor de presentar la siguiente moción consecuencia interpelación, relativa a la exclusión de las farmacias de la Orden de 14 de mayo de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2019, el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales (11\10\04\01\00235)

Justificación

Sustanciada en el pleno celebrado con fecha 14 de junio la citada interpelación, se solicita respaldo de la Cámara para la siguiente moción:

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que reintegre a las oficinas de farmacia, como entidades beneficiarias, en las órdenes del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo en las que se regulan y convocan los programas de apoyo a la modernización de establecimientos comerciales.

En Vitoria, a 17 de junio de 2019

**Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco. Borja Sémper Pascual, portavoz**

\*\*\*

*Saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko maiatzaren 14ko Aginduan farmaziak kanpoan uzteari buruz* (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.03.00.00143)

Mahaiak, 2019ko ekainaren 18ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea ondoko MOZIOA, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondorioz aurkeztutakoa, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 182.2 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, mozio hau eztabaidatzen den osoko bilkura hasi baino 24 ordu lehenago beranduen ere, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, interpelazioaren ondoriozko mozio hau aurkezten du, saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko maiatzaren 14ko Aginduan farmaziak kanpoan uzteari buruz (11\10\04\01\00235)

Arrazoiak

Aipatutako interpelazioa ekainaren 14an egindako osoko bilkuran gauzatu ondoren, honako mozio hau babesteko eskatzen zaio Ganberari:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, berriz sar ditzala farmaziak, erakunde onuradun gisa, saltegiak modernizatzeko laguntza-programetarako arauak ezarri eta ekitaldietarako deialdiak egiten dituzten Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko aginduetan.

Gasteizen, 2019ko ekainaren 17an

**Carmelo Barrio Baroja, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Borja Sémper Pascual, bozeramailea**

\*\*\*







5. gaia. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, ikerkuntza eta garapenaren arloan 2020. urtean EAEn BPGaren % 3 inbertitzea lortzeko herri itun bat adosteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.  
[11\11\02\01\00046]

-----

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2016-11-30

. Aurkeztutako zuzenketak:

- EP (1 artikuluei egindakoa)
- EA-NV eta SV-ES (1 osokoa)

-----

Osoko bilkurako izapidetzea (Erregelamenduko 175. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Ihardespen-txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa a acordar un pacto de país para conseguir que en el año 2020 se invierta en la CAPV un 3 % del PIB en materia de investigación y desarrollo.  
[11\11\02\01\00046]

-----

. Presentación de la proposición no de ley: 30.11.2016

. Enmiendas presentadas:

- EP (1 articulado)
- EA-NV y SV-ES (1 totalidad)

-----

Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación





***Ikerkuntza eta garapenaren arloan 2020. urtean EAE n BPGaren % 3 inbertitzea lortzeko herri itun bat adosteari buruz*** (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.0046)

Mahaiak, 2016ko abenduaren 12ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidalizi.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Iker Casanova Alonsok, EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduren babesean, ondorengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, ikerkuntza eta garapenaren arloan 2020. urtean EAE n BPGaren % 3 inbertitzea lortzeko herri itun bat adosteari buruz.

Zioa

